

HERRI ZAINZAILEA HELBURU

Eraldaketafako gakoak

**HERRI ZAINZAILEA
HELBURU**

Eraldaketarako gakoak

Liburuxka hau 2024ko irailetik 2025eko uztailera Udalbiltzak bultzatutako eta Emagin Elkarteak dinamizatu eta landutako hausnarketa kolektiboaren fruitua da.

Eskerrik asko prozesuan parte hartu duzuen guztiei:
Agurtzane, Ainara, Andere, Andoni, Araitz, Aritz, Beñat,
Idoia, Julen, Junkal, Koldo, Leire, Maider, Maria, Mertxe,
Miren, Mirene, Nekane, Oihane, Tania eta Txefi.



Versión en
castellano



Version
française

2025eko urria

Lege gordailua: D 01021-2025

Argitaratzailea: Udalbiltza partzuergoa

Idazketa, diseinua eta maketazioa: Emagin Elkarteak

Inprimategia: Leitzaran Grafikak

©Udalbiltza partzuergoa

CC-BY-SA Creative Commons Aitortu Partekatu

<https://creativecommons.org/licenses/by-sa/4.0/deed.eu>

AURKIBIDEA

Sar hitza 6. or.

1. Abiapuntua: tokikotik eraldaketa globalerako bidean 11. or.

2. Eraldaketaren beharra 19. or.

3. Herri zainzaileen aldeko manifestua 24. or.

4. Begirada eraldatzailea 28. or.

5. Herri zainzaile baten oinarriak 33. or.

6. Gobernantza publiko komunitarioa 39. or.

7. Esku-hartzerantz 59. or.

Azken hitza 96. or.

SAR HITZA

Egun ez du inork zalantzan jartzen errealitate soziodemografiko berri baten aurrean gaudela, aldaketen aroan gaudela, eta hamarkada honen amaierarako proiektatutako demografia piramideak arriskuan jartzen dituela gure ongizate egitura guztiak, eta, gainera, zaintzaren krisia areagotu egingo dela modu nabarmenean. Euskal Herria, noski, ez dago egoera horretatik salbu. Joera demografikoek zaintza beharraren hazkundera iragartzen dute: 2036an, 65 urtetik gorako pertsonak biztanleriaren %25-30 inguru izango dira.

Bistan da, beraz, XXI. mendeko gizarte honek duen erronka nagusietako bat dela zaintzarena, eta erronka horri ezin zaiola bizkar eman. Gaur egun, gainera, zaintza lanak antolatzeko dugun moduak ez ditu gizartean dauden beharrak asetzen, eta, ondorioz, zaintzak beste modu batean antolatu ezean, egoerak okerrera egingo du. Horrela bada, nola konponduko dugu zaintzaren eskariaren eta eskaintzaren arteko desoreka? Nork zainduko gaitu? Eta nola? Horra, beraz, herri gisa erantzun beharreko galderak eta garatu beharreko estrategiak.

Euskal Herriak duen zatiketaren eta subiratasun faltaren ondorioz, zaintza erregimen ezberdinak aplikatzen dira lurralde bakoitzean, eta eskumenen banaketa nahasia eta, kasu askotan, kontraesankorra da, eta lurraldeen arteko desorekak eta desberdintasunak areagotu egin dira.

Edonola ere, ñabardurak ñabardura, lurralde guztietan zaintza ereduaren funtsa antzekoa da: emakumeen ardurape soilean oinarritzen den

eredu familiarra, eta pribatizazio politikak. Azken urteetan, gainera, zaintza premia areagotzeari migrazioetik ari zaio erantzuten, eta, ondorioz, emakume etorkin eta arrazializatuak ari dira nagusiki zaintza lanetan, lan baldintza oso prekarioetan, esklabutzaren pare, kasu askotan.

Testuinguru berezi honetan, beraz, tokikotik eragitea ezinbestekoa da. Udalbiltzan sinetsita gaude udalerriek, tokiko komunitateekin batera, laborategi eraldatzaile bihurtzeko gaitasuna dutela, eta, zaintzaz ari garelarik, ikuspegi ekofeministatik eta burujabetzaren paradigmatik abiatuta, herri zaintzaileak eraikitzeko proposamena luzatzen dugu esku artean duzun liburuxka honetan. Sinetsita gaude zaintza, bere dimentsio osoan ulertua, gizarte eta lurralde eraldaketarako palanka nagusia izan daitekeela, eta zaintzak eraldatuz beste eredu sozial, ekonomiko eta ekologiko bat eraikiko dugula.

Liburuxka honetan, beraz, eraldaketaren beharra mahaigaineratzen da, eta eraldaketa prozesu hori herri zaintzaileen markotik garatzeko proposamena egiten da. Hala, herri zaintzaile bat zer den definitzeko ekarpen ausarta eta berritzailea egiten du, eta bidegabekeriak eta desberdinke-riak gainditzeko nolakoa behar duen izan gure begirada proposatzen digu: ekofeminista, antirra- zista, antikapazitista, adinkeria-aren kontrakoa eta euskalduna.

Zer aldatu nahi dugun bezain garrantzitsua da nola egin nahi den bidea, eta horretan arreta berezia jartzen da liburuxka honetan. Premisa

argia planteatzen digu: egungo gizarte erronka konplexuei sen eraldatzailez aurre egiteko, izan zaintzaren eremuan izan bestelako eremu batean, ezinbestekoa da politika konbentzionala alboratzea eta gobernatzeko eta kudeatzeko modua aldatzea. Egungo garaiek lidergo modu berriak aktibatzea, ikuspegi sistemikoz aritzea, gizarte zibileko eragileen eta erakundeen arteko lankidetzak formulak egituratzea eta izaera komunitarioko gobernantza kooperatiboei bide ematea exijitzen dute, eta, horregatik, udalon (esan nahi baita udal egiturak eta funtzionamenduak, edota arduradun politikoak zein teknikoak) rolak errebisatzeko eta aldatzeko proposamena egiten da: gizarte berrikuntzaren bidetik, udalok rol ekintzailea, proaktiboa eta erraztailea hartzea. Tokiko eskalak aukera ematen digu molde berrietan sakontzeko, eta ur berri eta sakonagoetan murgiltzeko gomita egiten zaigu, eraldaketa subiranistaren zerbitzura.

Halaber, herri zaintzaileak zerumugan, zaintzak eraldatzeko esku-hartze posibleak ere jasotzen dira, bi eremu handitan antolatu direnak: lurraldea zaintzeko eta zaintzarako lurralde bat prestatzeko esku-hartze posibleak, batetik, eta pertsonen zaintzara bideratzen den arreta eredua aldatzeko proposamenak, bestetik.

Ez da erronka makala, beraz, parez pare daukaguna. Mugimendu feministak eta zaintzaren alorrean nola edo hala inplikaturik dauden kolektiboek (zentroetako langileak, desgaitasuna duten pertsonen elkarteak, etxeko langileak, etab.) urteetan egindako borrokari esker, zaintza instituzio nagusien agendetan kokatu da; eta udal eta herri askotan ari dira abiatzen proiektu eraldatzaileak. Beste askotan gaiari heltzeko premia eta gogoia dago, baina ez da erraza marrazten zein

den egin behar den bidea. Are eta gehiago tokiko eskumenak zein baliabideak mugatuak direnean.

Horregatik, har ezazu liburuxka hau lanerako tresna gisa, inspiratzeko eta zaintzen duten herriak eraikitzeko bidean aurrera egiten laguntzeko erreminta gisa.

Tresna elkarlanean sortu da, askotariko eremuetako ordezkariak egin duten hausnarketa kolektiboaren fruitua da. 2024ko irailean hasi eta 2025eko uztailan amaitu den lan prozesuaren emaitza da, Emagin Elkartek dinamizatutakoa. Horregatik, ez dugu bukatu nahi langintza honetan aritu diren kideei eskerrak eman gabe. Zuen lan eta ekarpenik gabe, hau ezinezkoa zatekeen.

Orain, zuena da txanda. Zinez espero dugu baliagarria izatea.

Haritz Alberdi Arrillaga,
Udalbiltzako lehendakaria.

Agurtzane Solaberrieta Mesa,
batzorde eragileko kide eta zaintzaren
arduradun politikoa.



1.

ABIAPUNTUA: TOKIKOTIK ERALDAKETA GLOBALERAKO BIDEAN

1.

● ABIAPUNTUA:
TOKIKOTIK ERALDAKETA
GLOBALERAKO BIDEAN



Gaur egun dugun krisi anizkoitza –klimatiko, ekologiko, soziala– ez da ustekabeko egoera, sistema kapitalista, patriarkal eta kolonialaren ondorio logikoa baizik. Azken urteetan, kapitalismo berdearen mozorroarekin aurkeztu da sistema hori, kolapsoei aurre egiteko errezeta bakar gisa; mozorroa kenduta, ordea, oinarrian mantentzen den logika bera da: gizabanakoa bihurtzen da guztiaren neurri, eta natura menderatu beharreko baliabide bihurtzen da, kontrolatua, eta gutxi batzuen mesedetan erabilia.

Sistema horrek etekina eta kontrola jartzen ditu bizitzaren eta harremanen gainetik, eta horrek prekarizazioa, desberdinkeria eta naturarekiko talka ekarri ditu. Gizon zuri heterosexuala aurkezten da arrazoimenaren eta egiares jabe, eta horren parean kokatzen dira natura eta gainontzeko gorputzak: menpekoak, isilaraziak, objektu bihurtuak. Ikuspegi binario eta hierarkizatu horrek bizitzaren esparru guztietan eragiten du, eta, hazkundearen eta kontsumoaren izenean, kapitalaren metaketa bizitzaren gainetik lehenesten duen egitura patriarkal eta koloniala aragotzen du. **Zaintza lanak, sistema mantentzeko ezinbestekoak izanik ere, gutxietsita daude: komunitate sareak ahuldu dira, eta Mendebaldeko gizarteetan zaintzaren krisia modu bereziki bortitzean ageri da.**

Gaur egun zaintza lanak antolatzeko dugun moduak ez ditu gizartean dauden beharrak asetzen. Egun, sistemak ez du gaitasunik biztanleriaren geruza askoren ongizatea bermatzeko, eta datozen urteetan egoerak okerrera egingo duela iragartzen dute datuek, zaintzak beste era batera antolatzen ez baditugu behintzat. Biztanleria zahartzeak, menpekotasun indizearen goraka-


dak, zaintzaileen eskuragarritasuna murrizteak, politika neoliberalen garapenak edo askotariko familia ereduak hedapenak (besteak beste, familia geroz eta txikiagoak) inpaktu zuzena dute zaintzak antolatzeko moduetan. Ondorioz, zaintza krisiaz mintzo dira talde zein teoriarari feministak. Horrela, bada, galdera bezala formulatuko dugun ondoko erronka handia dugu parez pare: **nola konponduko dugu Mendebaldeko gizarteetan zaintzaren inguruan dagoen eskariaren eta eskaintzaren arteko desoreka? Nork zainduko gaitu? Eta nola? Nola baliatuko dugu zaintza krisia egungo zaintza erregimena irauli eta bidezko zaintza sistema bat eraikitzeko?**

Zaintzaren krisia hedatu egin da, eta, horrekin batera, baita Europako zenbait herrialdetan ditugun zaintza premiak ere. Horiek bultzatuta, migrazioak zaintzan lan egiten duen emakumearen aurpegia du hemen eta orain. **Emakume etorkin eta arrazializatuak ari dira nagusiki zaintza lanetan, izan administrazio publikoak bultzatutako zerbitzuetan, izan merkatuaren logikan mugitzen diren bestelakoetan (irabazi asmoko enpresetan), izan etxeko langileen artean.** Horregatik ohartarazten digute: zaintza krisiak nazioarteko arrastoa du. Gainera, norbanakoak ez dira nazioartean mugitzen diren bakarrak; aipatzekoa da sektore informalaren egituraketan nazioz gaindiko sareek duten eragina. Hortaz, ikuspegi transnazonala ere behar dugu zaintzaren eremuan gertatzen ari dena aztertzeko, ulertzeko eta politikoki kokatzeko.

Euskal Herria bezalako nazioetan, burujabetza politikorik gabekoetan, zailagoa da komunitateek erabaki propioak hartzea zaintza, ingurumen, kultura, energia edo elikadura bezalako espa-

rruetan. Nazio zapalkuntzaren ondorioz, Euskal Herria hiru administrazio eremutan zatituta dago, eta horrek zuzenean baldintzatzen du zaintzen antolaketa. Lurralde bakoitzean zaintza erregimen ezberdinak aplikatzen dira, eta eskumenen banaketa nahasia eta, askotan, kontraesankorra da. **Zaintza ez dago eskubide unibertsal modura aitortua eta, ondorioz, herri gisa ez dugu zaintzaren inguruko proiekturik garatu, nahiz eta gure bizitzak sostengatzen dituen ardatz nagusietakoa izan.**

Euskal Herriko joera demografikoek zaintza beharren hazkundera iragartzen dute argi eta garbi. EUSTATen arabera, 2036an 65 urtetik gorako pertsonak biztanleriaren %30 inguru izango dira



EAEn¹. INEren aurreikuspenek adierazten dutenez, Nafarroan ehuneko hori %27 ingurura irits liteke². INSEEk dio Pirinio Atlantikoetan adinekoen pisua %24ra irits daitekeela epe berean³. Gaindegia datuek ere joera hori berresten dute (Euskal Herriko adierazleen galeria 2004-2024, Gaindegia, 2024): Euskal Herrian adinekoen ehunekoa etenik gabe hazi da, eta jaiotza tasa, aldiz, jaisten joan da. Horrek erakusten du biztanleria zahartzen ari dela, eta hazkunde demografikoa, neurri handi batean, migrazioaren ondorio dela.

Erronka global horiei aurre egiteko, ezinbestekoa da tokiko eragileek eta udalerriek duten funtzio eraldatzailea. Udalerriek, tokiko komunitateekin batera, laborategi eraldatzaile bihurtzeko gaitasuna dute: zaintza antolatzeko modu berriak esperimentatzeko, ekonomia feministaren logikak praktikara eramateko, eta bizitzak –denen bizitzak– erdigunean jartzen dituen politikak gauzatzeko.

Lan honek horixe proposatzen du abiapuntu gisa: krisi anizkoitzaren aurrean, udalerriek eta bertako komunitateek eraldaketarako duten gaitasuna norabide berean jartzea, ikuspegi ekofeministatik eta burujabetzaren paradigmatik abiatuta. Tokiko mailan eragitea ezinbestekoa da, eta, bertatik abiatuta, beste eredu sozial, ekonomiko eta ekologiko bat eraikitzea. Lokaltik globalera, bizitzaren iraunkortasunaren eta duintasunaren alde.

[1] EUSTAT – https://www.eustat.eus/elementos/ele0000800/euskal-aeko-urtarrilaren-1eko-biztanleak-lurralde-eta-adin-taldearen-arabera-urteari-jarraiki-milaka/tb10000819_e.html

[2] INE – <https://www.ine.es>

[3] INSEE – <https://www.insee.fr/en>

2.


ERALDAKETAREN BEHARRA

2.

● ERALDAKETAREN BEHARRA

Zaintza halabeharrezko elementua da gure bizitzetan. Esan nahi da **pertsona guztiok jaiotzen garenetik hiltzen garenera arte behar dugula zaintza**. Horregatik esan daiteke zeharkakoa ere badela, hasieratik amaierara behar dugulako. Noski, forma eta intentsitate ezberdinetan beharko dugu zaintza gure bizitza egoeraren arabera. Hautzaroa, nerabezaroa, zahartzaroa edo bizitzaren amaierako etapetan, adibidez, zaintza beharrak areagotu egiten dira. Baita buruko sufrimendu, desgaitasun edo gaixotasun egoeretan ere. Baina horrek ez du esan nahi zaintza premia bakarrik momentu horietara mugatzen denik. Kontrara, pertsona guztion eguneroko behar bat da, maila ezberdinetan asetzen dena.

Bada kontraesan handi bat egungo gizarte antolaketa, ordea: bizi ahal izateko oinarrizkoa izanik ere, bizitza mantentzeaz gain ongizatea ematen digulako, aitortza eta balio gutxi ematen zaio zaintzari. Pertsonoi besteekin eta bizitzarekin lotzen gaitu, baina, pertsonok, ikusgarritasun eta aintzatespen eskasera katigatu dugu zaintza. **Ere-mu sozialean, ekonomikoan zein politikoan, ez du merezi eta behar adinako protagonismoa.**



Horren adierazletzat hartu daiteke gaur egun, oraindik, berariazko zaintza sistemarik ez izatea Euskal Herrian. Hala, zaintzaren erantzukizuna zatikatuta agertzen da eragileen (familia, komunitatea, udala, mankomunitatea, erkidegoa, estatua eta merkatua) eta zaintzari lotutako sektoreen (osasuna, gizarte-arreta, hezkuntza, hirigintza...) artean, eta horrek are konplexutasun handiagoa eranstean dio zaintzaren krisiari. Funtsezko hutsune horrez gain, larrialdi sozialeko egoerak ere egunez egun kritikokoago bihurtzen ari dira. Ondorioz, **zaintza antolatzeke eredua eraldatzeko premia ia mandatu bihurtu da Euskal Herrian burujabetzaren alde gauden udal administrazioentzat.**

ZAINZAREN ERALDAKETA PREMIAZKOTZAT

jotzen dugu, besteak beste,
ondoko ARRAZOIENGATIK:

Egungo zaintza-sistema gehiegi sostengatzen delako familietan.

Zaintzaileen aurpegia emakumearena delako, eta gero eta gehiago emakume migratu eta arrazializatuarena.

Bi aldiz pribatizatuta daudelako zaintza lanak: etxean eta merkantilizatutako zerbitzuetan.

Ez zaizkielako lan baldintza duinak bermatzen sektoreko langileei.

Ez zaielako erantzuten herritarren zaintza beharrei.

Arreta eredia ez delako pertsonetan oinarritzen.

Sare komunitarioak deuseztatzen ari direlako.

Kontsumo basatia lurra
suntsitzen ari delako.

Landa eremuekiko dagoen utzikeriak
babesgabetasunean utzi dituelako.

Lurraldeen eta lurren pribatizazio
mugagabea hondatzailea delako.

Emakumeak desjabetzen dituelako.

Indibidualizazioa gailentzearekin batera
bereizkeriak areagotzen ari direlako.

Lurrearekin eta inguruarekin konexioa
eten egiten duelako.

Finean, BIZITZA ITZALTZEN
ari delako eraiki behar ditugu
HERRI ZAINTZAILEAK.

3.

HERRI ZAINZAILEEN ALDEKO MANIFESTUA



Udalbiltza

EKOMENDEKOTASUNETIK ETA ELKARMENDEKOTASUNETIK ERAIKIKO DEN HERRIA

Egunero finitzen zara eta hala ere gau batzuetan bizitzea lortzen dio olerkiak⁴, eta horixe bizitzaren kondizioa, zaugarri egiten gaituena. Izan ere, mugak muga dira, eta ez dira gutxietsi edo ezkutatu behar: ez planetarenak ez gorputzarenak. Elkarri eusteko gaitasunean bilatu behar dugu indarra, erantzun kolektiboetan, elkar zaintzan. Bizitzarekiko lotura horrek ez ditu soilik pertsonen arteko babes sareak eskatzen, bizidunen artekoak baizik. Inguratzen gaituenarekiko mendekotasuna erabatekoa da, eta hortik eraiki behar dugu herria.

GURE TERRITORIOETAN SUSTRAITUA: LURRALDEAN ETA GORPUTZETAN

Bizitza zehatzetan materializatu behar dute zaintzen duten herriek, bakoitzaren bizitzak zeharkatzen dituzten zapalkuntzak kontuan hartu eta ezabatzeko. Berdin lurraldearekin ere, herri zaintzaileek tokian errotua behar dute, bertako elikadura, energia, ondare natural edo ekipamendu publikoak babestuz eta bultzatuz. Zuhaitzen gisako egiturak sortuko ditugu horretarako, tokian sustraituak baina, aldi berean, irekita daudenak beste maila eta esparru batzuekin elkarrizketa etengabea bizitzeko.

BIZITZA(K) ERDIGUNEAN JARRIKO DUEN HERRIA

Kapitalaren metaketa helburu nagusi izateari uko egin eta bizitza bera jarriko dugu ardatz. Esan nahi da bizi gaituen lurraldearen kontzientzia hartuko dugula, zaintzeko; eta bizidun guztien zaintza beharrei ziklo osoan kasu egingo diegula. Une oro, egoera oro eta erronka oro lagunduko duen herria izango gara. Ez dira babes falta, bakardadea edo prekarietatea eguneroko ogi izango. Horregatik, bizitza duinak bermatuko dituen antolaketa soziala defendatuko dugu, lan duina eta bizi-

[4] Martxel Mariskal Balerdik idatzitako “Gauak gure ametsak baino luzeagoak dira” testutik hartuta, *Lorategi izoztuan hezur huts bilakatu arte* diskoan jasotakoa (Lisabö, 2023).

garria, guztiontzako eta betirako. Izan ere, asuntza ez da bizirik irautea, baizik eta bizitzea merezi duten bizitzak eraikitzea xamurtasunaren eta kolektibotasunaren erradikaltasunaren.

GUZTIENTZAKO HERRIA

Askotarikoak gara. Eta horrek baliabide abaniko zabalarekin ibiltzea eskatzen du, buru beste errealtate daudelako. Alabaina, aniztasuna indar izango bada kontzientzia eta lanketa ere beharko dira, komunitatea zeharkatu eta egituratzen duten botere harremanak ez baitira huskeria. Ezberdinen arteko herria zaintza herri bihurtzeko, zentzu eta lan kultura berriak beharko ditugu. Ez dugu komunitate idealetan sinesten; badakigu gatazkak ere izango direla, baina bihurtu dezagun zailtasuna indar sortzaile. Esan nahi da, lehenetsiko ditugula komunikazioa eta kohesioa ez ulertuen eta zatiketen gainetik.

KOMUNITATE INDARTSUAK SUSTATUKO DITUEN HERRIA

Elkarrekikotasuna, erantzunkidetasuna eta elkarlana herri zaintzaileen zutabe izango dira. Baina horiei eustea ezin da soilik emakumeen ardura izan (irakurri lerro artean zis⁵ gizonentzako deialdi zehatza eta engaiamendu orokorrerako eskaria; guztion kargu hartzea ez bada, batzuen esplotazioa delako). Lankidetzako sare sendoen bidez egingo da aurrera, elkarrekin. Horregatik, komunitateak ehuntzea ez da hautazkoa izango, ezinbesteko baldintza baizik. Alegia, baliabideak komunitatearen mesedetan jarriko direla, komunitatearen gaitasunak gaitasun handi bihurtzeko.

IKUSPEGI INTEGRALA: ZAINZA OROTARIKO EREMUETARA ZABALDUKO DUEN HERRIA

Hain du zaintzak bizitzarekin zerikusia, ezen zaila dela mugatzea haren zabaltasuna. Eta helburua ere ez da hori, badakigulako

[5] Zisgenero jaiotzean esleitutako sexua eta genero nortasuna bat datozkion pertsonari deritzo. Beraz, transgenero terminoaren aurkako esanahia du.

norabide guztietan elkar zaintzeko gaitasuna lortzea dela erronka. Horrek lurreratuta zer esan nahi du? Eremu guztien konpromisoa behar dela. Hots, zeharkakotasuna. Hots, zaintza ezin dela bakarrik udal barruko sail batzuen edo udal kanpoko mugimendu batzuen esku utzi. Herri zaintzaileak, egiazkoa izateko, norabide guztietan eragin behar du, eta hala egiteko ardurek eta akordioek nahitaez zabalak izan behar dute. Inor ez ahazteko, dena barne hartzeko, arreta berezia jarriko dugu lubakietan, bidegabekerietan, puntu itsuetan, bazterretan, desoreketan eta desberdinkerietan.

IKUSPEGI KRITIKOZ ETA ERALDATZAILEZ JARDUNGO DUEN HERRIA

Ez dugu botere logikarik naturalizatuko. Are, horiek ezagutu, aztertu eta kudeatuko ditugu orekatzeko. Gutxienez bi gauza eskatuko dizkigu ariketa horrek: batetik, trebakuntza, gure begirada fintzeko, gure esku-hartzeak doitzeko; eta, bestetik, narratiba berriak sortzea, bizitza erdigunean jartzen duten hizkuntza eta praktiketara hurbiltzeko. Gainera, ariketak eraginkorra izateko errotikoa eta osoa behar du izan.

EREMU PUBLIKO INDARTSUA IZANGO DUEN HERRIA

Administrazioarena da zaintza eskubide unibertsal bilakatzeko ardua, eta baliabideak herritar guztion eskura jartzeko erantzukizuna duena. Era berean, administrazioa izango da interes komunitarioa lehenetsi eta babestuko duena. Ekuazioa sinplea da, eta ariketa, berriz, zaintzailea izate aldera, honakoa: gehitu behar da, alde batetik, lurraldearekiko lotura, kendu pertsonen nagusitasuna, eta ezabatu zatitzaile zapaltzaileak: hiri eta landaren artekoa, gizon eta emakumeen artekoa, jabe eta jabe ez direnen artekoa, pertsona txuri eta arrazializatuen artekoa, zaintzaile eta ez-zaintzaileen artekoa, herrigune eta industriaguneen artekoa... Ariketa ondo egiten badugu, bizitza(k) egongo d(ir)a erdigunean; bestela, sufrimendua. Misio hori ziurtatu behar du administrazioak.

4.

BEGIRADA ERALDATZAILEA

Desberdinkeriak gainditzeko bokazioak mugiarazten ditu herri zaintzaileak, eta bereziki behatu eta erreparatuko ditugu zaintzaren alorrean bidegabekeriak eragiten dituzten aldagaiak. Gaur egungo zaintza erregimena familiarizazioan, erabateko feminizazioan, arrazializazioan eta merkantilizazioan oinarritzen da.

FAMILIARIZAZIOA: gure zaintza erregimenean familiak dira zaintza beharrei erantzuteko errekurtsorik erabiliena. Familiak diogunean, gainera, jakin behar da familietako emakumez ari garela, ia eskusiboki beraiek betetzen dituztelako erakundeek edo gizonaek hartzen ez dituzten zaintza ardurak.

HIPERFEMINIZAZIOA: jendartean zaintza lanak nagusiki emakumeek egiten dituzte, eta, gainera, hala egitea espero da. Lan banaketa sexuala dago muinean, eta horrek inpaktu zuzena du emakumeen bizitzetan. Dohainik edo baldintza prekarioetan aritzen dira besteak zaintzen, eta horrek desjabetu egiten ditu.

ARRAZIALIZAZIOA: zaintza lanak, bereziki intentsiboenak eta prekarioenak, geroz eta gehiago uzten ditugu emakume etorkin eta arrazializatuen esku, eta, beraz, ezin da ardatz koloniala auzi honetatik kanpo utzi. Hemengo zaintza krisiak erreproduzio lanen nazioarteko banaketa asimetrikoa du oinarrian, eta klase arrazializatuen bizi ibilbideak guztiz baldintzatzen ditu.

MERKANTILIZAZIOA: eremu informalean zaintza lanak erabat baliogabetuak dauden artean, eremu formalean geroz eta gehiago daude pribatizatuta eta prekarizatuta. Irregularitasuna, lan baldintza eskasak, segurtasun eza, soldata baxuak edo kontziliaziorako aukera eskasak sufritu behar izaten dituzte zaintza lanetan diharduten langileek, besteren artean. Horrek, pobrezia ekonomikoa, zaurgarritasuna eta babesgabetasuna eragiteaz gain, indarkeria pairatzeko aukerak biderkatzen ditu.

ZAINTZEN DUTEN HERRIEK BIDEGABEKERIA HORIEK GUZTIAK
GAINDITZEA IZAN BEHAR DUTE IPAR, ETA, HORRETARAKO,
BEGIRADAK HONAKOA BEHAR DU IZAN:



EKO-FEMINISTA

Ekomendekoak eta elkarmendekoak gara, gure inguruarekiko erabateko lotura dugulako. Bestela esateko, askotariko espezieek osatutako komunitatez osatzen gara. Ondorioz, ikuspegi antropozentrista eta patriarkala alboratu eta begirada ekofeminista geureganatu behar dugu eraldaketa osoa izateko.

ANTIARRAZISTA

Zaintza geroz eta arrazializatua-
go dagoen honetan, bereziki,
erreparatuko diogu jatorri edo
estatus migratorioen ondorioz
sortzen diren ezberdinkeriei.
Zor kolonialaren beste adibide
bat gehiago da, berandu baino
lehen kitatu behar dena. Horre-
tarako kulturartekotasuna bultza-
tu eta harrera herri izatetik hasi
gaitezke.





ADINKERIAREN KONTRAKOA

Herri zainzailea sortzeko, ezinbestean adinagatik sortzen diren diskriminazio zein estereotipoak gaintzeko ikuspegia bermatu behar dugu. Adinkeriak pertsonen bizi proiektu zein osasunean eragin zuzena du, eta guk pertsona guztien behar eta desireri erreparratu nahi diegu.

ANTIKAPAZITISTA

Askotarikoak gara, eta halakoak gure behar eta desirak edo bakoitzak ditugun gaitasunak ere. Herri zainzaileak guztion bizitzak jarriko ditu erdigunean arreta berezia ezarriz aukera berdintasunean ez dauden gorputzetan. Bizitza independentearen alde egin nahi dugu, eta eskura jarri tokian dauden baliabide guztiak pertsonak haien bizitzen jabe izan daitezen.



EUSKALDUNA

Desberdinkeriak gaintitzeak gure lurraldean euskararen sustapena, ofizialtasuna eta normalizazioa lortzea esan nahi du. Euskara hizkuntza bizia den aldetik honen balio soziala eta kulturala indartu behar da. Hizkuntza aniztasuna bermatzeko, euskara zaintzea ezinbestekoa da.



5.

HERRI ZAINZAILE BATEN OINARRIAK

IKUSPEGI SISTEMIKOA:

Sistema kapitalista patriarkal koloniala atakan jartzea izango du helburu, tokiko errealitatea aldatzeak sistema higitzen duela jakitun. Era berean, zaintzaren ekosistema osoari egingo dio erreferentzia.

ZE HARLERROTASUNA:

Zaintzen eraldaketa integrala izan dadin, derrigor, bizitza gertatzen den eremu guztiak zeharkatuko ditulea begirada izan behar du. Horrek ez du esan nahi lehentasunik ez dagoenik, baina ikuspegia eremu guztietan txertatzea izan behar du jomuga.

TOKIKOTASUNA:

Zaintzen eraldaketa prozesuak lekuan lekuko baldintza, behar, baliabide, erritmo eta pertsonen arabera garatuko dira, prozesu lekutuak izango dira. Halaber, tokikotasuna zaintzarako metodo gisa ulertuko du, parte hartuko duten pertsona oro eta komunitatea erdigunean jarritz, gorputzetan eta lurraldeetan errotuta.

TRANTSIZIOA:

Zaintzen eraldaketa trantsizio politika gisa irudikatu behar dugu herri burujabeen bidean. Batetik, epe luzera begirako errotiko eradaketan sakondu behar du, baina, bestetik, egun ditugun urgentziei erreparatu eta eredu alternatiboak plazaratu behar ditu.

PUBLIKO-KOMUNITARIOA:

Zer nolako publikoa nahi dugun hausnartuko du, gaur egungo funtzionamendua aldatzeko eta demokratizazio bidean jartzeko egitura administratiboak. Baina, horrez gain, erakundeez harago, komunitate osoan eragiteko prozesua izango da, horren interlokuzioa eta parte hartzea bermatuz. Bide horretan, ezinbestekoa izango da, batetik, administrazio publikoari dagozkion ardurak bermatzea, eta, bestetik, baliabideak eskaintzea, komunitatea hauspotzeko. Beraz, erakunde barruetan zein horietatik kanpo eragiteko prozesua izango da.

LANKIDETZA:

Ezinbestekoa izango da tokiko lankidetzaz edota eskualdekoa, herrien arteko elkartasunean oinarritutako dena, udal barruko sailen arteko aliantza, elkarlan politiko-teknikoa, herriko eragileen artekoa, erakunde publiko ezberdinen artekoa, interkooperazioa, eta guztien arteko lankidetzaz erak asmatzea.

SU TXIKIAN:

Prozesuaren erritmoari egiten dio erreferentzia, baina baita eragiteko esparruari ere. Norabide argia izan arren, arnas luzeko prozesuak direla kontziente izan behar da, eta, era berean, gure herriko espazio txikietan eragiten has gaitzke.

INTERSEKZIONALITATEA:

Aldagai jakinek testu-guru batean hartzen duten esanahiaren arabera, posizio soziala aldatu egiten da. Eta, beraz, gu guztion bizitzak ez dituzte indarkeria berdinek zeharkatzen. Zaintza sistema ez da errealitate sozial horretatik iragazgaitza, zaintza lanen banaketan generoak, jatorriak, arrazak, adinak edota klase sozialak eragin zuzena baitute. Zaintza lanen antolaketak elkarreraginean dauden zapalkuntza iturrietatik edaten du, eta bereizkeriak eragiten ditu talde sozial ezberdinen artean.

BEGIRADA APREZIATIBOA:

Dagoenetik abiatuko dugu eraldaketa, herrian errotuta dauden praktika onenetatik.

6.

GOBERNANTZA PUBLIKO KOMUNITARIOA

6.

● GOBERNANTZA PUBLIKO KOMUNITARIOA

PROZESU ERALDATZAILEAK ABIATZEKO PARADIGMA ALDAKETA

Gizarte konplexuetan bizi gara. Ezinbestean, gizarteak gobernatzeko eta kudeatzeko moduak paradigma aldaketa eskatzen digu, eta horrek elkarrekin aritzeko premia lehen lerroan kokatzen du.

- Egiturazko aldaketa sakonak bizitzen ari da mundua, eta aurrean ditugun desafioak sistemikoak eta aurrekaririk gabekoak dira. Gizarte konplexua eta askotarikoa da Euskal Herrikoa ere, eta, gainera, askotariko dimentsioak dituen krisi betean gaude, eta horrek erantzun integralak eskatzen dizkigu.
- Zaintza krisiari aurre egin eta zaintza antolaketara eraldatzeko, ez digu balio orain arteko goitik beherako politikak. Erronka horri ezin diogu eutsi politika publiko fragmentatuekin, epe laburreko eta banakako esku-hartze sektorialekin zein prozesu erabat burokratizatuekin. Gizarte sektore zabalen inplikazioa eta epe luzeko ikuspegi integrala eskatzen digu.

→ Kontziente izan behar dugu demokrazia liberala eta ordezkatzaila ere krisian dagoela. Demokraziaren oinarrizko tresnekiko mesfidantza handia dagoela: alderdi, sindikatu eta instituzioek sinesgarritasuna galdu dute, eta atsekabe politikoa hedatu da. Herritarren egonezina nagusitu da, amaraun instituzional osoa interes ekonomiko neoliberalen alde jarri baita, eta horrek krisia areagotu du, eta jarrera totalitario eta indibidualistei bide eman.

→ Politika publikoak kudeatzeko egiturak zaharkituak eta ahulak dira. Horrekin batera, sektORIZAZIOA aipatu behar da, horien kudeaketa zatikatua baitago eta zerbitzuen espezializazioa bultzatzen baitute. Ondorioz, ez dute gaitasunik gizartearen aldaketa azkar eta konplexuei aurre egiteko. Gainera, desoreka dago administrazio publikoek eskain dezaketenaren eta gizarteek espero dutenaren artean.

→ Partaidetza politikoa sustatzeko ohiko moldeak higitu dira. Lan kultura berri bat behar da, eredu berriak espazio publikoa eta politika publikoak kudeatzeko; demokrazian sakontzen lagunduko duten hausnarketarako eta ekintzarako bide eta modu berritzaileak. Gainera, herritarren zein tokian tokiko eragileen parte hartzea behar dugu, eta horretarako ezinbestekoak dira: gobernugintza irekia eta erraztailea, berrikuntza demokratikoak eta politika egiteko molde berriak.

Baina, kontuz, herritik sortzen diren ekimenen **AUTONOMIA BERMATU BEHAR DA**, komunitatean sor daitezkeen autoeraketa prozesuak hauspotu eta inolaz ere ez instituzionalizatu eta logika burokratikoetan murgildu. Eremu instituzionala eta herri mugimenduen arteko hibridazioak, saretzeak eta lankidetzak erronka hori du.

→ Gure lurraldeen garapenerako ezinbestekoa da ehun ekonomikoari ere erreparatzea. Hori logika neoliberallean egin beharrean, gure herriko eta herritarren beharrei zein interes komunitarioari begirako proiektu ekonomikoetan jarri behar dugu arreta, eta horiek ere lankidetzarako gobernantzaren logikara ekarri.


→ Tokiko eskala txikiak aukera ematen digu molde berrietan sakontzeko: administrazioaren eta komunitatearen arteko hibridazio aukeretan esperimentatzeko, arazo eta erronka komunei erantzuteko gaitasun kolektiboa lantzeko eta gizarte kohesioan aurrera egiteko ereduak sortzeko.

Zaintzaren alorrean ditugun erronkei heltzeko, ezinbestean begiratu behar diogu gure herriak gobernatzeko dugun moduari. Nola hartzen diren erabakiak, gai publikoak nola arautzen diren, zein arkitektura burokratiko osatu den, nola kudeatzen den boterea edota nola banatzen den, zein prozesuren bidez eta zein praktika ezartzen diren. Gainera, aztertu behar dugu eragileen parte hartzea nolakoa den, zein lankidetzak esparri dauden, eta nolako harremanak garatzen diren.

PARADIGMA ALDAKETA HONEK ESKATZEN DIGU:

1. Eragileen arteko harremanei erreparatzea
2. Lankidetzak sareak artikulatzea
3. Partaidetza politikak berritzea

Era berean, erakunde publikoen logika burokratiko, segmentatu eta zurrunei begiratzea eta horiek eraldaketa bidean jartzea eskatuko digu.



6.1

GOBERNANTZA PUBLIKO
KOMUNITARIOA

• PROZESU ERALDATZAILEAK ABIATZEKO EGITURA ETA LAN KULTURA BERRIA

Aurretik aipatu bezala, prozesu eraldatzaileak abiatzeko, ezinbestean demokrazia liberaletik gobernantza publiko komunitariora egin behar dugu salto, eta horrek gobernatzeko erak errotik aldatzea eskatzen du. Jarraian, gobernatzeko era berri horretara trantsitatzeko hainbat elementu bildu ditugu, oinarri direlakoan.



ERALDAKETA PROZESUAK HAUSPOTZEKO GOBERNATU:

Zapalkuntzei aurre egin eta interes komunitarioa erdigunean izango duen gobernantzaren bidez sustatuko dugu eraldaketa. Hori izango da prozesu eraldatzaileen printzipio komuna, tokiko politika publikoa hezurmamituko duen bisioa. Horretarako, ezinbestekoa izango da lidergo kolektiboak eraikitzea, ezberdinen artean adostasunak bilatzea eta elkarrekin lan egitea.

AUTOERAKETA HAUSPOTU:

Elkarreraginaren bidez autoantolatuko den prozesu bat izango da, kanpoko edo barneko zuzendaritza zentral bat gabe. Harreman sare konplexu batek osatuko du eraldaketa prozesuaren gorputza eta garrantzitsua izango da ondokoak bermatzea:

- **Baliabide ekonomikoak:** zaintza prozesu eraldatzaileak ekonomikoki lagunduko dituen finantzaketa modu berriak arakatu.
- **Giza baliabideak:** prozesuaren mesedetan funtzio teknikoa garatuko duten pertsonak izendatu.
- **Babes juridikoa:** egungo araudiak ezartzen dituen mugak gainditzeko zirrikitu eta aukera berriak identifikatu.
- **Azpiegiturak eta proiektuak** garatzeko baliabideak eraldaketa prozesuen mesedetan jarri.
- **Egituren demokratizazioa:** herritarrek be-rea duten botere politiko eta soziala gauzatzeko egiturak sortu.

PARTAIDETZA POLITIKA AKTIBATU:

Eraldaketa prozesuek ezinbestean jaso behar dituzte askotariko ahotsak. Ahots horiek bilatzea prozesuaren xede da bere horretan, baina baita baldintza ere: zaintzaren alorrean estrategikoak diren ikuspegirik gabe motz geldituko delako eraldaketa asmoa. Partaidetza politikak garatzeak ez du soilik entzutea eskatzen, baita ahots horiek era seguruan plazaratzeko espazioak eta metodologiak diseinatzea eta ahots horiei balioa eta erabakimena ematea ere.

Eragileen arteko harremanak dialektikoak dira: elkarrekintzan, tentsioan eta gatazkan dauden dimentsioak dira eragile publiko eta komunitarioak. Alabaina, bien arteko artikulazioa gertatzen denean, potentzial eraldatzailea biderkatu egiten da.

Arreta gakoak:

- **Parte hartzeko kalitatezko espazio eta metodologiak aplikatu:** ahots guztiak errespetuz entzungo direla bermatuko duten askotariko gune, une eta metodologia parte hartzaileak erabili. Entzuteaz gain, ahots guztiei balioa eta erabakitzeko boterea emateak demokratizazio prozesuetan sakontzen lagunduko digu.
- **Askotariko ahotsak, mailak eta ezagutzak (teorikoa, esperientziala...) artikulatu:** komunitatea osatzen duten gizarte sektore baztertuen eta herri mugimenduen ahotsa entzuteko neurriak hartu.
- **Intzidentzia eta eragin politikoa ahalbidetu, diseinuan eta inplementazioan:** partaidetza eta gobernantza sareen gakoan eragiteko gaita-

KONTUZ!

Asimilazioa, instituzionalizazioa, profesionalizazioa, mugimenduak ahuldu, hierarkia, botere harremanak...



suna dago. Eragileen ahotsak politika publikoen diseinuan, inplementazioan eta balorazioetan barneratzen direnean, baliokideak izango dira ordezkariak eta partaidetza.

- Parte hartze prozesuetan esanguratsuak diren espazioak, erritmoak, hizkuntza eta beste, **herritarren aukera eta nahien arabera antolatu.**

SARETU:

Eraldaketa prozesuak ez dira bakarrik barruko indarrez elikatzen, eta, zentzu horretan, zenbat eta ingurune saretuago, antolatuago edo konprometituagoa izan, orduan eta errotuagoa izango da eraldaketaren hauspoa. Eraldaketa prozesuek askotariko eragile edo norbanakoak elkarrekin topatu eta elkarrekin lan egiteko espazioak ahalbidetu behar dituzte.

- **Komunitatea ezagutzea** abiapuntua izango da honen gaitasunak, mugak edo beharrak kontuan izateko.

- **Eragileen arteko elkarlana oinarri**, aliantzak eta interkooperazioa bultzatuko dugu.

- Gertuko **harremanak eta konplizitateak** eraikiko ditugu.

- Diziplina ezberdinen arteko **ezagutza eta trebetasunak** elkarriketa etengabekoan jarriko ditugu.

- Gaitasun berrietan trebatuko gara eta bakoitzaren **rolak berrikusiko ditugu.**



KONTUZ!

Departamentali-
zazioa, burokrati-
zazioa, merkatua,
espektatibak...



- **Informazioa sistematizatzeko tresnak zein bitartekoak sortuko ditugu** eta eskuragarri jarriko ditugu. Era berean, eragile guztien artean **ebaluaziorako prozedurak eta tresnak adostuko ditugu.**

Gobernantza publiko-komunitarioak lan eremu ezberdinetan diharduten eragileak eremu komun batean elkarrekin aritzea eskatzen du. Horrek, erakundeen lan moldeen eta joko arauen berrikusketa dakar.

6.2

GOBERNANTZA PUBLIKO KOMUNITARIOA

• PROZESU ERALDATZAILEAK ABIATZEKO ERAGILEEN ROLEN BERRIKUSPENA

Jarraian, prozesu eraldatzaileak abiatzeko eta politika publiko eraginkorrak egikaritzeko, ezinbestekoak ikusten ditugun eragileen rolak eraldatzeko gakoak jaso ditugu. Hala ere, azpimarratu nahi dugu eragile bakoitza ez dela estankoa, elkarerraginean dauden eremuak direla, eta hortaz, haien rol berri horiek ere elkar ukitzen dutela. Bakoitzari egokitutako funtzioek, hortaz, elkar elikatzen dute.

ADMINISTRAZIO PUBLIKOA ETA ORDEZKARI POLITIKO ZEIN TEKNIKOAK:

Erakunde publikoek gaur egun funtsezko zeregina dute bizitzaren sostenguan baina ezin esan hutsunerik ez dagoenik zentzu horretan. Garrantzitsua da ulertzea erakundeek eredu sozial, ekonomiko eta politiko zehatzak bultzatzen dituztela, eta, horregatik, funtsezkoa da modu demokratikoa-goetara, inklusiboagoetara eta zaintzaileagoetara gerturatzea, justizia sozialean oinarrituta herriarren askotariko premiei modu ekitatiboan erantzuteko.

Eremu honen funtzio nagusiak:

- **Bisio estrategikoa lantzea:** horretarako, elkarrizketa prozesuak, hausnarketa kolektiboa eta sorkuntza herritarra sustatu behar du. Arazo konplexuetan trebatu behar da, eta adimen estrategikoa garatu.
- **Unibertsaltasuna bermatzea:** herritar ororentzat gobernatzeko funtzioa du, asimetria sozialak gainditzeko bokazioa izan behar du.
- **Kudeaketa demokratiko eta eraginkorra egitea:** baliabide publikoak guztien eskura jartzea eta udal zerbitzuek ondo funtzionatzen dutela ziurtatzea.
- **Lidergo erraztailea izatea:** ordezkari politikoek, kudeaketan eta kontrolean oinarritzen diren funtzioetatik, prozesuak errazten, dinamizatzen eta elkarlana sustatzen duten gaitasunetara egin behar dute salto. Ondorioz, lidergo erraztailea izan behar dute, harremanak garatu eta sareak eta aliantzak sortu behar dituzte.
- **Profilak eraldatzea:** udal teknikariak eta langileak zerbitzu hornitzaile izatetik, sorkuntza herritarraren mesedetan dauden eragile izatera pasatzea. Eragile komunitarioen arteko sare konexioak eraikitzea eta zaintzea dagokie, konektore lana eginez, modu integratzaile eta artikulatzailean.
- **Komunitatea ezagutzea:** enpatia garatu eta behar sozialak identifikatzeko tresnak, baliabideak eta gaitasunak landu behar dira.
- **Gaitasunak demokratizatzea:** komunitatetik eta herri mugimenduetatik egiten den ekarpena aitortzea eta balioan jartzea.
- **Udalaz gaindiko harremanak** egitea maila ezberdinetako erakundeekin: aldundiak, elkargoa, osasun sistema, hezkuntza sistema...

Hori guztia garatzeko, eta udalei dagozkien funtzio zein esku-menetan sakontzeko, ezinbestekoa izango da askotan kontratazio publikora jotzea. Horretarako, kontratazio publikoen legeek (2/2018 Foru legea, apirilaren 13koa edota 9/2017 Sektore publikoko kontratuena) honako aukerak jasotzen dituzte:

- » Dirulaguntza lerroak
- » Hitzarmenak
- » Esleipenak
- » Jabari publikoa eta ondarea

Horietan guztietan garrantzitsua izango da hau: berdintasun klausula sozialak txertatzea, irizpide teknikoak ekonomikoen gainetik egotea, erakundearen ardura zein izango den zehaztea, kontrol mekanismoak ezartzea, jarraipen eta ebaluaziorako irizpideak txertatzea, interes komunitarioak lehenestea....

EHUN KOMUNITARIOA:

Etengabeko eraketan aurkitzen diren harreman sozialez ari gara, bizirik dauden elkarreragineko gizakien arteko artikulazio sareez. Komunitateak izan daitezke ingurune materialean garaturiko harreman eta emozioen ekosistemak; eta baita izaki sozialek ezinbesteko dugun talde pertenezia sentipena garatzeko eremuak ere. Komunitateaz aritzean, ekosistema horri bizirik eusten dioten prozesuez ari gara; afektuzko, elkar babesean oinarrituriko eta konpromisozko harremanez; baita elkarrekikotasun eta elkartasun sareez, agentzia politikoaz, herritarren parte hartzeaz eta hurbileko antolaketaz ere.

Ezin dugu ukatu gatazka eta bidegabekeriek gurutzaturiko errealitateak ere badirela. Alegia, ezin gara komunitatearen erromantizazioan erori, jakin baitakigu gure jendarte eredu bidegabeba egituratzen duten gertakari ororen lehenbiziko lekuko eta erreprodukziorako eremu direla.

» HERRI MUGIMENDUAK

Herri mugimendua, mugimendua (aldaketa) sortzeko eratzen den eragilea da: jendartean gauzak mugitu, ordena auzitan jarri eta eratuta dagoena gainditzeko bokazioa du. Bere praktika, dinamika eta egituren autonomiari eutsiz, indarrean dagoena norabide askatzailean jartzeko misioa du.

Ekintza kolektibo gatazkatsuan dihardute, eta gatazka politiko eta kulturalean inplikaturik daude, aldaketa soziala helburu izanik. Testuinguru neoliberalari aurre egiteko aliatu estrategikoak dira.

Honakoak dira herri mugimenduaren funtzioetako batzuk:

- Lurraldeko eragileen arteko **elkarlana eta koordinaziorako markoak** sortzea. Eragile eta aktoreen arteko elkarlana sustatzea, autonomia eta independentzia galdu gabe.
 - **Identitate kolektiboa** sortu eta elikatzea.
 - **Herritarren eta administrazioaren arteko zubiak** eraikitzea: beharren identifikazioa egin eta baliabideetara deribatzen jakitea.
 - **Lurraldeko eragileen agenda koordinatzea** eta informazioa askotariko kanaletatik helaraztea.

» BIZILAGUN SAREAK

Bizilagun sareak lurralde bera partekatzen duten pertsonen artean sortzen diren harreman sareen eta lankidetzaren dinamiken multzoak dira. Sare horiek funtsezkoak dira bizitza demokratikorako; izan ere, gizartean parte hartzeko espazioei eusten diete, ekimen komunitarioak bultzatzen dituzte eta eragile aktibo gisa jarduten dute inguruak eraldatzeko. Gainera, funtsezko zeregina du

eskubide kolektiboen defentsan, zaintza sareak eraikitzen eta komunitate kohesionatuagoak eta duinagoak sortzen.

Honakoa da bizilagun sareek egin dezaketen ekarpena:

- **Mendekotasun edo bazterkeria egoerak prebenitzea:** ingurune sozial-erlazionalean dauden beharrezko erantzuteko eremu nagusia da.
- **Herrikideen zaurgarritasun edo babesgabatasun egoerak hautematea:** gertuko eguneroko harremanek ahalbidetzen digute pertsonen egoeraz edo ohiturez jabetzea. Sistema publikotik eskainiko den babesera prebentzio lana egitea.
- **Beharrian emozionalak sostengatzea:** egunerokoan garatzen diren harreman sozialek garrantzi handikoak dira. Horregatik, babes eta akonpainamendu afektibo eta psikologikoa eskaintzea izango da roletako bat.
- **Baliabide materialak eskaintzea:** beharrian materialak asetzeko elkartasun gune ere bada. Babes sare horien bidez, egoera urgenteei aurre egiteko gunea ere bada.
- **Gizarte kohesioa sustatzea eta intzidentzia politikorako estrategiak garatzea:** babes sareak artikulatzen laguntzea, dauden beharrak identifikatzea eta horiek asebetetzeko estrategiak garatzea.

EHUN SOZIOEKONOMIKO ERALDATZAILEA

Bizitzaren erreprodukzioa erdigunean jartzen duten ekimen, erakunde eta praktika ekonomikoen multzoari egiten dio erreferentzia. Ekonomia kapitalistaren alternatiba direla ulertzen dugu,

interes komunitarioa lehenesten baitute irabaziaren gaitetik. Bokazio eraldatzailea izateaz gain tokiko burujabetza indartzen du, hurbileko ekonomia elikatzen du eta trantsizio ekosozialerako bideak irekitzen ditu. Horrez gain, beste honako funtzioak ere baditu:

- Lurraldeko **behar sozioekonomikoak** identifikatzea.
- **Lan duina eta bizigarria** sustatzeko estrategiak eta proiektuak garatzea.
- Lurralde batek beharrezkoak dituen edo desira kolektibo diren **proiektuak sustatu** eta zerbitzuak eskaintzeko egitura sozioekonomikoak sortzea.
- Zaintza sektore profesionalaren **garapenerako ibilbideak** diseinatzea.
- Etxeko eta zaintza sektorean diharduten zainzaileen arteko **artikulazioa sustatzea**.
- Administrazio publikoaren eta komunitatearen artean **zubiak eraikitzea**. Konektore lana egitea.
- **Begirada teknikoa** garatzea.

Jakitun gara zaintzaren sektorean gaur-gaurkoz orotariko enpresa pribatuek jarduten dutela. Ez da gure lehentasuna izango prozesu eraldatzaileak martxan jartzeko irabazi asmoa lehentasun duten horiekin elkarlana abiatzea, baina, gure herrietan baldin badaude, garrantzitsua izango da herri prozesuaren logikan kokatzen saiatzea, eta jarraipen mekanismo zorrotzak ezartzea.



• ZAINZAK ERALDATZEKO LURRALDEKO AUTOERAKETA PROZESUA

1.

**ZAINZA ERAGILE
ESTRATEGIKOAK
IDENTIFIKATZEA
ETA ARTIKULATZEA**



- Zaintzaren arloko eragile gakoan mapaketa egin (zerbitzu, elkarte, eragile, enpresa, etab.).
- Eragile eta norbanakoekin harremana egin.
- Artikulaziorako eta interkooperaziorako espazioak sortu.

2.

**ZAINZAREN
IKUSPEGI
PARTEKATUA
SORTZEA**



- Zaintzarekin lotutako trebakuntza ordezkari politiko eta teknikariek.
- Zaintzaren pertzepzioak jaso eta bateratzeko prozesua abiatzea.
- Herriko eragile eta norbanakoekin oinarrizko formazio feminista.
- Zaintzak eraldatzeko prozesuaren nolakotasuna orotariko eragileekin adostu.

3.

**LURRALDEKO
EGOERAREN
ARGAZKIA EGITEA
(DIAGNOSTIKOA)**



- Herriko datu soziodemografikoak jaso.
- Herrian dauden zaintza zerbitzu eta baliabideen azterketa kuantitatibo eta kualitatiboa egin.
- Herriko zaintzaile profesional, afektibo, guraso, erabiltzaile, adineko pertsonen... behar eta desioak jaso.

4.

**PROIEKTU ESTRATE-
GIKOAK ETA EKINTZA
PLANA DEFINITZEA**



- Jasotako behar eta desioetatik ekintzarako proposamenak egin.
- Zaintzaren eraldaketarako helburu estrategikoak zehaztu.
- Ekintza plan bat definitu denbora tarte batean garatzeko.

5.

**EGITURA PUBLIKO
KOMUNITARIOA
SORTZEA**



- Ekintza plana aurrera eramateko eragileen arteko koordinazioa zehaztu.
- Ekintza plana aurrera eramateko berriazko egiturak sortu.

6.

**EBALUAZIOA ETA
SISTEMATIZAZIOA**


- Tresna eta prozedura bateratuak sortu.

7.

ESKU-HARTZERANTZ

7.

● ESKU-HARTZERANTZ



Jarraian duzuen zaintzak eraldatzeko esku-hartze posible bat da. Ez da bakarra; izan ere, edozein dela sustatu nahi dugun eraldaketa, gure lurraldean eta bizi garenon bizitzetan errotuta egon behar du, eta, beraz, ezingo du izan toki guztietan berdina. Hala ere, urteak daramatzagu zaintzaren alorrean aldatetak zein norabide har dezakeen pentsatzen eta probatzen, eta lanerako marko bat inspiragarria izan daitekeen ekintza multzoa sortu dugu.

Jakitun gara zaintzak eraldatzeko ezinbestean begiratu behar diogula udal barruko egituraketari eta beste hainbat arlotan gertatzen denari. Ezin dugu zaintzaren antolaketa aldatu beste hainbat eremutan eta norabidetan lan egin gabe. Era berean, ezin da guztia bildu, eta lehentasuneko iruditzen zaigun markoa ekarri dugu hona.

Bizitza(k) politika publikoen erdigunean jartzeko ahalegin bat da jarraian proposatzen den esku-hartzea. Bizitzako ziklo guztian, herritarron beharrak eta desioak kontuan hartzeko saiakera bat. Askotarikoak gara, eta orotarikoak dira gure gorputzetan gurutzatzen diren zapalkuntza aldagaiak. Horiek guztiak hartu behar ditugu kontuan politika publikoak garatzen ditugunean, bizitza ziklo guztian zehar sortzen diren askotariko egoerak ere kontuan hartuz. Eguneroko bizigarria eraiki nahi dugu eta, horretarako, aztertu zein egoera dugun herrian, zein diren zaurgarritasunerako aldagaiak,

eta horiek prebenitzeko zein izan daitezkeen jardunbide posibleak.

Bizitza ziklo guztiari erreparatu nahi diogu, arreta berezia jarriz zaintza intentsiboagoak behar dituzten horien beharretan eta horiek artatzen ari diren zaintzaileengan, profesionalki zein afektiboki ari diren horiengan. Era berean, ez diegu bizkarra eman nahi iraupen luzeko zaintzek ekartzen dizkiguten erronkei, eta horregatik izango dute protagonismoa egindako proposamenetan.

Zein da herrikideak artatzeko dugun modua? Zein norabidetan nahi dugu aldatu? Nola jarri guztion bizitzak erdigunean gure jardun politikoan? Nola nahi dugu zainduak izan? Nola nahi dugu zaindu?

Ez hori bakarrik; izan ere, ezin da gizakia bakarrik politika publikoen erdigunean egon, hau da, lurraldeari, bere osotasunean, izaki orori begiratzeko gerturatze bat izan behar da. Bizitzak lurralde batean garatzen dira, eta, horregatik, lurraldeari bere osotasunean begiratu behar diogu. Ezin ditugu izaki batzuk lehenetsi, ezta lurralde batzuk besteen gainetik jarri ere. Ezinbestekoa da ulertzea askotariko espezieek osatutako kateek osatzen dituztela gure lurraldeen ekosistemak, elkarren mendeko garela, eta horrek elkarrekikotasun eta elkartasun harremanak eskatzen dizkigula.

Horrek eskatzen digu lurralde antolaketa eraldaketaren ikuspegitik egitea, produkzioaren eta kapital metaketaren logika gaindituz. Beharrezko ditugun oinarritzko lanak eta bizitza bizigarriak izateko ekoizpen jarduerak aztertu eta birplanteatu behar ditugu, eta, era berean, espazio publikoa demokratizatu behar dugu eta

egunerokoaren zerbitzura jarri, baina espazio pribatu eta intimotik erabat banatu gabe. Gainera, gure lurraldeetako bioaniztasuna zainduko duen esku-hartzea sustatu behar dugu.

Ez da erronka makala, baina poliki hasteko gonbidapena egiten dugun lehena da. Har ezazu hau lanerako tresna gisa, inspiratzeko eta aurrera egiten laguntzeko erreminta gisa.

Zazpi lan lerro identifikatu ditugu, nahiz eta kontziente garen beste era batzuk ere badaudela hau guztia antolatzeko. Ordena zehatz bat eman diegu, baina ez dugu ulertzea nahi lehentasunen arabera antolatu ditugula, guztiek baitute garrantzi berdina. Dena den, ulertzen dugu ezin direla lan lerro guztiak batera martxan jarri, eta herri, eskualde edo auzo bakoitzean planifikatu beharko dira neurriok, lehentasun mailaren arabera. Alegia, erabaki beharko da zerekin hasi eta zerekin segi.

1. Lurraldearen zaintza eta antolaketa
2. Arreta ereduaren eraldaketa
3. Zaintzaileen bizi eta lan baldintzen hobekuntza
4. Komunitatearen sentsibilizazioa eta artikulazioa
5. Oinarrizko gizarte zerbitzuen eraldaketa
6. Bizitoki politika kolektiboa eta zaintzailea
7. Elikadura, agroekologia eta arrantza

LURRALDEAREN ZAINZA ETA ANTOLAKETA

Zaintzen duten herriak eraikitzeko, pertsoneri ez ezik, lurraldeari bere osotasunean begiratu behar diogu, gizakietan soilik zentratuta egotetik horiek bizi diren lurralde guztira zabaltzea ikusmira, hain zuzen. Askotan aipatu dugu errealitatea sortzeko dugun erak antropozentrikoak direla, gauza guztien neurri bilakatzen baititugu pertsonak (eta pertsona zehatz batzuk gehienetan). Horiek horrela, herri zaintzaileen oinarrian egongo da askotariko izakiok habitatzen dugun territoria, eta berau zaintzeko eta hori guztion zaintzaren mesedetan antolatzea izango da erronka.

Lurraldea nola antolatu dugun eta nola antolatu nahi dugun aztertzea eta gure territorioarekin zein motatako harremanak ditugun berrikustea egongo da eskuhartze honen oinarrian; izan ere, espazioak antolatzeko dugun manerek ere errealitate berriak sortzen laguntzen digute.

Justizia sozialean oinarritutako herriak eraikitzeko, inguruko lurrak eta bertan metatzen diren guztion ondasun natural zein kulturalak babestu behar ditugu eta, era berean, horiek interes komunitarioen mesedetan jarri.

Honakoak dira lehenetsi ditugun helburuak:

- 1.1 Lurraren pribatizazioa mugatu eta helburu komunitarioa eta zaintzaileetarako lehentasunez erabiltzea.
- 1.2 HAPOa ikuspuntu ekofeministatik egitea (generoa, ingurumena, osasuna, zaintza eta euskara ikuspegiak lehenetsi).
- 1.3. Zaintzaren ibilbideak, ekipamenduak eta zerbitzuak lotuko dituen espazio publiko bizia sortzea.
- 1.4. Ondasun komun naturalak eta kulturalak zaintza-ekosistemaren parte direla aitortzea eta babestea eta garatzeko bitartekoak jartzea.

**LURRAREN PRIBATIZAZIOA MUGATZEA ETA
HELBURU KOMUNITARIORAKO ETA ZAINZTAILEETARAKO
LEHENTASUNEZ ERABILTZEA**



Lurren pribatizazioa gelditu

- Landa eremuan, naturaguneetan eta eraikita ez dauden eremuetan ez eraikitzeke esku-hartu.
- Lurzoru publikoaren salmentak eten edo luzamendua jarri, eta hirigintza hitzarmenak berrikusi.

Lurzoru eta eraikin publikoen informazioa jaso eta zabalpena egin

- Identifikazio eta komunikazio lana egin.

Zaintzarako lurzoruak gorde

- Haur eskoletarako, eguneko zentroetarako, zaintzaileentzako, etab.

Lurzoruen lagapena egin herritar zein kolektiboek

- Kudeaketa komunitarioko edo aldi baterako erabilerako formulen bidez, zaintza ekimenetarako espazioak laga (elikagai bankuak, auzo sareak, etab.).

Lurzoru estrategikoak eskuratu gizarte ekinbide kolektiboentzat

- Ondasun komunerako eta tokiko beharretarako lursailen erreserbak sortu.
- Helburu dotzionala atxiki.

**HAPOA IKUSPUNTU EKOFEMINISTATIK EGITEA
(GENEROA, INGURUMENA, OSASUNA, ZAINZTA
ETA EUSKARA IKUSPEGIAK LEHENETSIZ)**



HAPOa egiteko prozesu parte hartzailea sustatu

- Hirigintza feministan adituak diren aholkularitza teknikoak lehenetsi.
- Lerro nagusiak herritarren parte hartzea sustatuko duten prozesu bidez definitu.

Zaintzaren gune eta ibilbideen mapaketa kolektiboa egin

- Zaintzaileekin, zainduekin, migratuekin, desgaitasunen bat dutenekin, LGTBQ+ pertsonekin, etab.

Zaintzaren eta ingurumenaren auditoria herritarra egin

- Arauak, irizpideak, edo bestelakoak betetzen diren ebaluatzeko, Udalaren jarduerak edo prozedurak berrikusten dira.
- Desberdintasunak identifikatu daitezke mugikortasunean, ekipamenduetan, joan-etorrietarako denboretan, lurraldearekiko harremanean, etab., eta horren arabera neurri zuzentzaileak proposatu.

**ZAINTZAREN IBILBIDEAK, EKIPAMENDUAK ETA
ZERBITZUAK LOTUKO DITUEN ESPAZIO
PUBLIKO BIZIA SORTZEA**



Funtzio eta erabilera anitzeko ekipamenduak sortu

- Izaera eta erabilera partekatuko espazioak sortu.
- Beste udalerrri, eskualde eta antzekoekin partekatuko diren ekipamenduen sarea osatu.

Ekipamenduetako araudiak berrikusi aprobetxamendu osorako

- Lan ordutegietatik kanpo ekipamenduak herritarrentzako erabilgarri eta irekita mantentzeko araudiak berrikusi.
- Espazio pribatuetan, adibidez, ermitetan, zerbitzu publikoak emateko aukerak aztertu.

Ekipamenduen kudeaketan kogestioa bultzatu

- Herritar talde antolatuen eta Udalaren arteko kudeaketa eredu partekatua ezarri ekipamenduetan: emakumeen etxeetan, gizarte etxeetan, kultura etxeetan, etab.

Mugikortasun eredia aztertu eta oinezkoak lehenesteko interbentzioak eta planifikazioak egin

- Garraio publikoa, oinezkoentzako ibilbide seguruak eta irisgarriak bermatu, intermodalitaterako beharrezko azpiegiturak sustatu, etab.
- Zaintzaileen ibilbideak ezagutu eta horiek errazteko beharrezko azpiegitura eta loturak egin.



Herritarren segmentazioa gaindituko duten ekipamenduak sortu

- Belaunaldien artekoak izatea, orotariko beharretara egokituak, etab.
- Zerbitzu eta ekipamenduen deszentralizazioa sustatu

Ekipamendu pasiboak sustatu

- Atsedenelekuak, atsedene zerbitzuak, sare informaleko topelekuak, bankuak, iturriak, jolastokiak, zakarrontziak, komun publikoak, etab.

Espazio publikoaren birnaturalizazioa

- Baratzeko komunitarioak, gune berdeak, fruta arbolak eta abar sustatu.
- Industriaguneak naturalizatu.
- Porlanaren eta naturaren arteko mugak lausotzeko proposamenak garatu.

Irisgarritasun unibertsala bermatu

- Irisgarritasun unibertsala bermatzeko neurriak hartu: oztopo arkitektonikoak, linguistikoak, digitalak eta ekonomikoak kendu.
- Desberdinkeriak hauteman eta konpondu.
- Proiektuen irekitze lizentzia berrietan edo berrikuntzetan nahitaezko irisgarritasun irizpideak sartu.
- Irisgarritasuna bermatzeko laguntza bideratu: ekonomikoa eta teknikoa.

**ONDASUN KOMUN NATURALAK ETA KULTURALAK
ZAINTZA EKOSISTEMAREN PARTE DIRELA
AITORTZEA, BABESTEVA ETA GARATZEKO
BITARTEKOAK JARTZEA**



Balio komuneko eremuak indartu babestutako espazioen bidez

- Ordenantzen bidez, edo parke, erreserba eta abarren bidez.
- Auzolan programak bultzatu espazio horien zaintzan herritarrak inplikatzeko.
- Naturaguneetarako sarbide zuzena ekidin.

Kultura sorkuntza oroimenerako, esperimentaziorako eta topaleku komunitariorako gaitu

- Zaintzarekin loturiko ondarea berreskuratu.
- Falta diren norbanako zein kolektiboek berariazko lekua eman ekoizle zein hartzaile gisa.
- Ezagutza kolektibo historikoa aitortu eta babestu.

2. LAN LERROA

ARRETA EREDUAREN ERALDAKETA

Egun gailentzen den arreta ereduari pertsonak diagnostikatu, ebaluatu, sailkatu eta zerbitzuak eskaintzen zaizkio. Ez zaio pertsonari begiratzen, ez pertsonaren bizitzan eragin zuzena duten bestelako aldagaiei, adibidez, horren gogo, bizi baldintza, ohitura edo harreman sareari. Horregatik esaten da ikuspegi asistentzialista nagusitzen dela, pertsona ez delako kontuan hartzen, ezta horren ingurunea, baliabideak eta gaitasunak aprobetxatzen ere. Arreta eredu estandarretan oinarrituta zaintzen da, zerbitzu eta baliabide berak emanez errealitate ezberdinak dituzten pertsoneri. Hori gertatzen da zerbitzu sozialetan, baina baita hortik kanpo ere.

Zerbitzuen kudeaketa lehenesten da, eta askotan ez dago baliabide ekonomiko edota humano nahikorik komunitatea harillkatzen jarraitzeko eta ikuspegi erlazionalagoa bermatzeko, ezta pertsonalizazioa eta pertsonen behar eta desioak erdigunean jartzeko ere. Horregatik, arreta ereduak aldatu behar da, ez dezan izan adinkeriarik, ez diezaien kendu pertsoneri agente izateko zein erabakitzeko eskubiderik. Horren aurrean, bakoitzaren bizi ibilbideak, harremanak eta tokiko errealitatearekin loturak mantentzea errespetatzen duten arreta eta zerbitzuak lehenetsi nahi ditugu. Finean, pertsona oinarri duen arreta eredurantz igaro nahi dugu.

Honako hauek dira lehenetsi ditugun helburuak:

- 2.1 Pertsona oinarri duen arreta ereduaren ezagutzea.
- 2.2 Pertsona oinarri duen arreta ereduaren txertatzea.
- 2.3 Pertsona ardatz duen arreta ereduaren erreferentziazko guneak sortzea.

**PERTSONA OINARRI DUEN ARRETA (POA)
EREDUA EZAGUTZEA**



POAren inguruko prestakuntza langileentzat

- Etengabeko prestakuntza eskaini gizarte zerbitzuetako, osasuneko, etxez etxeko laguntzako eta udal ekipamenduetako langileei.
- Ekipamendu zein zerbitzu publikoen lizitazioetan arreta ereduaren gaineko klausulak txertatu, POA ereduaren praktika duten erakundeak lehenetsiz.
- Azpikontrataturako zerbitzuetako langileentzat, derrigorrezko prestakuntza eskaini POA ereduaren inguruan.
- Zaintzaileentzako (formal zein informalak) prestakuntza eskaini.

POA EREDUA TXERTATZEA



Banakako bizi planak diseinatu

- Gizarte zerbitzuetako erabiltzaile bakoitzarekin batera (eta, nahi izanez gero, haren hurbileko sarearekin) zaintza plan bat diseinatu, haren balioetara, beharretara, bizi historiara eta lehentasunetara egokitua.
 - Herriko zerbitzuetan arreta eredu hau aplikatu.
 - Bizi plan bakoitzari erantzuteko alde anitzeko esku-hartzeak prestatu eta era koordinatuan lan egin erakundeen artean.

POA ereduaren implementazioa ebaluatu

- Zerbitzu publikoak POA ereduaren zenbateraino duten txertatuta ebaluatzeko adierazleak sortu, eta printzipio horren arabera neurri zuzentzaileak hartu.

Erabiltzaileen parte hartze aktiboa sustatu

- Ebaluazio sistema bat sortu (adib. kontsulta kontseiluak edo batzordeak) artatutako pertsonen eta haien ingurukoaren iritzia modu jarraituan jasotzeko.
 - Artatutako pertsona eta haien ingurukoaren ikuspegia eza-gutu, ez soilik ebaluazioan, baita zerbitzuen diseinuan ere.

**POAREN ERREFERENTZIAZKO
GUNEAK SORTZEA**



Herritarren harrera integralerako erreferentzia nagusi bat sortu (leihatila bakarra, harrera bulegoa...)

- Pertsonen arretan gertatzen diren etenaldiak gainditu eta zerbitzuen arteko koordinazioa indartu.
- Udalerrian dauden zerbitzu eta baliabide ororen inguruko informazioa eskuratzeko erreferentziatzko gune bat sortu.
- Kasuen arreta eta jarraipena teknikari berek egin.

3. LAN LERROA

ZAINZAILEEN BIZI ETA LAN BALDINTZEN HOBEKUNTZA

Argi dago, zaintza lanak aitortu eta dagokien balio sozial zein politikoa emateko, lan horietan lehen lerroan dauden pertsonen ekarpena kontuan hartu behar dela. Ezinbestean, gaur egungo zaintza lanen antolaketa bidegabea salatu behar da, eta, era berean, zaintzaileen bizi eta lan baldintzak hobetu eta duindu behar dira. Batak bestea dakar. Ezin dugu gutxi batzuen zaintza eskubidea bermatzen jarraitu zaintzaileen eskubide sozial eta politikoen bizkar; hots, kalitatezko zaintza eman eta jasotzeko, langileek baldintza duinetan egon behar dute, eta horrek, zaintza lanei balio sozial eta politikoa emateaz gain, balio ekonomikoa ematea eskatzen du.

Zaintza lanek izaera erreproduktibo bat dute, baina baita produktiboa ere. Hau da, besteentzat dohainik edo esplotazio egoeran lan egiteak zeregin horiek egiten dituztenak desjabetzearekin batera, kapitala ekoizten dute. Ondorioz, zeregin teknikoaz gain, produkzio eta ordaintze baldintzak ere barnebiltzen dituen auzia da. Hots, zaintza gatazkaz mintzo garela, zaintza lanak gauzatzen dituzten pertsonen lan baldintzez, soldataz edo lan eskubideez hitz egin behar da. Bereziki arreta jarri behar da kolektibo zaugarrietan, etxeetan zaintza zerbitzuak ematen ari diren horiengan, migrazio prozesuak zeharkatuta iristen baitira askotan lan horietara. Begirada antirrazista zein transnazionala garatzea ezinbestekoa da eremu honetan. Bestalde, emakumeak esplotazio baldintzetan egoteak ezaugarritzen ditu zaintza lanak. Ondorioz, zaintzaileen bizi eta lan baldintzaz ari garela, jakin behar dugu batez ere emakumeen biziez ari garela, guztiz feminizatuta dagoen eremua delako zaintzaren sektorea.

Honako hauek dira lehenetsi ditugun helburuak:

3.1 Zaintzaile profesional zein afektiboen egoerari jarraipena egitea.

3.2 Zaintza lanak duintzea.

3.3 Oinarrizko eskubideez jabetzea.

ZAINZTAILE PROFESIONAL ZEIN AFEKTIBOEN EGOERARI JARRAIPENA EGITEA



Zaintzaileei entzuteko foroak zabaldu

- Herriko gizarte langileak aldizkako bilerak egin pertsona zaintzaileekin (profesionalak eta senideak), horien premiak identifikatzeko eta konpontzeko.
- Herriko osasun zerbitzuarekin zaintzaileen egoeraren jarraipena egiteko bitartekoak sortu eta horiek hobetzeko planak diseinatu elkarlanean.

Zaintzaile afektiboan atsedendia bermatu

- Zaintza lanak egiten dituzten senide edo hurbileko ahaideek atsedeen hartu ahal izateko laguntzak eskaini: ordezkari zaintzaileak, jarduerak, egonaldiak, laguntza ekonomikoak...
- Arreta psikologikoa eskaini eta haien ongizate emozionala zein fisikoa indartzeko formazioa eskaini, ahalduz gero ikuspegitik.

ZAINZA LANAK DUINTZEA



Zaintza lanak egonkortu eta duindu

- Kontratazio publikoa lehenetsi eta, azpikontratazioen kasuan, klausula sozialak, berdintasunezkoak eta abar txertatu.
- Kontratatzaileekin lan egin, ezkutuko ekonomia formalizatzeke eta zaintzaileei lan kontratu duinak egiteko.
- Zaintzaileentzako nahiz kontratatzaileentzako lan gaietarako doako aholkularitza laborala, juridikoa eta psikologikoa eskaini.
- Zaintzaileen kooperatibak sortzea sustatu eta horien garapenean lagundu juridikoki eta ekonomikoki.

OINARRIZKO ESKUBIDEEZ JABETZEA



Etxeko zaintzaile profesionalen bizi baldintzak hobetu

- Etxeko eta zaintza langileen erradiografia egin eta haien egoera zehatza ezagutzeko ekintzak sustatu.
- Errolda sozialerako aukera eman.
- Zaintzarako etxebizitza politikak diseinatu.
- Zaintzaileentzat taxi zerbitzua ezarri.
- Erraztasunak eman zaintza lan profesionaletan dabiltzanei herriko baliabide eta zerbitzuetan parte hartzerakoan: zerbitzuetako sarbidean lehentasuna emanaz, baliabide publikoetan ordutegi malguak eskainiz, hobarien bidez...
 - Arreta soziosanitarioko ikasketak tokian bertan egiteko lan-kidetza proiektuak bultzatu, hezkuntza edo enplegu zerbitzuekin.
 - Zaintzaileek eskura dituzten laguntza zerbitzuei buruzko informazioa zabaldu: atzerritartasuna, ikasketen homologazioa, baimenak eta abarrekin lotutako kontuak argitzeko.
 - Harrera planak eta espazioak sortu.
 - Euskara ikasteko laguntza publiko komunitarioak eman (ordutegi malgutasuna, online aukera, doakotasuna, hobariak...).
 - Herriko agenda eta berriak heltzen zaizkiela bermatu, eta, horrela ez bada, bitartekoak jarri.
 - Kulturartekotasuna bultzatu: jatorrizko herrialdearekin loturak mantentzeko zein haien herrialdea ezagutzera emateko ekintzak bideratu.

4. LAN LERROA

KOMUNITATEAREN SENTSIBILIZAZIOA ETA ARTIKULAZIOA

Zaintza lanak era desorekatuan banatzen dira, eta klasearen, generoaren eta arrazaren arabera segregazioa sortzen da. Emakumeak dira zaintzaile nagusiaren papera betetzen dutenak familia gehienetan, eta ez erakunde publikoek, ez gizonak, ez dute dagokien ardura hartzen. Molde familista duten politika publikoak garatzen dira, oro har, eta nagusitzen diren zerbitzuak legez definituta dagoen menpekotasunari bideratzen dira, familiaren bidez bermatuta. Administrazio publikoari dagokion berme unibertsalerako ardura kendu gabe, eta gertuko sareek izaten duten erantzukizuna alde batera utzi gabe, zaintza lanak komunitatean birbanatzeaz ere aritu nahi dugu. Jendarte osora zabaldu behar dugu zaintza lanekiko ardura, eta, bereziki, orain arte egoera pribilegiatuan kokatu diren horiek interpelatu behar dira: gizonak.

Gainera, uste dugu eredu publiko komunitario baterako trantsizioan kokatu behar dugula, komunitateak izan daitezten familia eta erakundeen arteko hutsunea betetzen laguntzen dutenak, eta zaintza eredu berrietara joateko motor. Halaber, uste dugu komunitatean egotea, harremanetan, sareetan eta sistema komunitarioetan parte hartzea, pertsonen bizi kalitaterako eta ongizaterako ezinbesteko beharrezkoa dela; beharrezko dela elkar babestu eta garatu gaitzkeen ingurune konkretuak sortzea; harreragunea, konfiantza, zaintza eta babesa eskaintzen dizkiguten biziguneak; eta intzidentzia politikorako ezinbesteko direnak.

Honako hauek dira lehenetsi ditugun helburuak:

- 4.1 Zaintza lanen inguruko herritarren kontzientzia handitzea.
- 4.2 Erantzunkidetasuna bultzatzea.
- 4.3 Zaintzen duten komunitateak martxan jartzea.

**ZAINZA LANEN INGURUKO HERRITARREN
KONTZIENTZIA HANDITZEA**



Sentsibilizazioa landu era iraunkorrean

- Zaintza lanen ekarpen desberdinak ikusgarri egin, balioan jarri eta babes instituzionala eskaini.
- Zor patriarkal eta kolonialaren ardura politikoa hartzeko konpromisoa erakutsi.
- Komunikazio euskarriak eta kanpainak sortu horretarako.

Zaintzaileei ahotsa eman

- Zaintzaileekin elkarrizketa foro publikoak bultzatu.
- Zaintzaileek beren lan eskariak iragartzeko espazioak gaitu.

Errespetuzko eta enpatiazko komunikazio protokoloak sortu

- Entzute aktiboa, hizkuntza ez-infantilizatzailea eta autonomiarekiko errespetua lehenesten dituzten tratu gidak ezarri.
- Hizkuntza, gaitasun eta kultura aniztasuna kontuan hartu herriko politiketan.

ERANTZUNKIDETASUNA BULTZATZEA



Gizonen erantzukizuna handitzeko lanketa egin

- Gizonek zaintza lanetan duten inplikazioa handitzeko lanketa espezifikoa era mistoan eta ez-mistoan.

Gazteen inplikazioa areagutzeko lanketa egin

- Gazteen egoerara gerturatzeko eta ezagutzeko espazioak sortu.
- Gazteek komunitate zaintzaileetan duten pisua handitzeko esku-hartze berezituak egin.

Ehun ekonomikotik ere zaintza sustatu

- Bizitza, lana eta zaintza uztartzeko neurriak hartu ditza-ten bultzatu herriko proiektu ekonomikoak.
- Zaintza planak egitea sustatu entitate pribatu eta sozialetan.
- Zaintza planak dituzten erakunde, kooperatiba eta elkar-teentzat hobariak ezarri.

ZAINTZEN DUTEN KOMUNITATEAK MARTXAN JARTZEA



Zaintza sare informalaren balioa nabarmendu

- Zaintza sare informalak identifikatu eta komunikatiboki horien balioa azalarazteko lanketa egin.

Elkar zaintzeko ekimen publiko-komunitarioak aktibatu

- Bakardade eta zaugarritasun egoeran dauden pertsonen hautemate eta akonpainamendu komunitarioa egitea helburu duten ekimenak martxan jarri.

Zaintzen aldeko herri akordioa gauzatu

- Askotariko eragileen konpromiso praktikoa oinarri duen herri akordioa definitu eta atxikimenduak bildu.

Elkar zaintzak ardazturiko egitasmoak bultzatu

- Kontsumo taldeak, belaunaldi arteko zentroak, erresistentzia kutxak, denbora bankuak, gaitzegurra...

Herriko komertzioen sarea indartu eta komunitatearen zaintzaren mesedetan jarri

- Herriko komertzio txikiak sustatuko dituzten ekintzak antolatu.
- Komertzio zainzailea sustatu, adin txikikoek, adinekoek edota orotariko herritarrek dituzten beharrei erreparatuta.

5. LAN LERROA

OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUEN ERALDAKETA

Administrazio publikoa, familia, merkatua eta komunitatea dira egungo sisteman zaintza hornitzaile nagusiak, baina batzuek eta besteek ez dute pisu berdina hartzen lan horietan. Familiak dira nagusiki zaintza beharrei, bereziki intentsiboenei, erantzuten diotenak, eta, gehienetan, horrek huts egiten duenean edo heltzen ez denean sartzen dira jokoan beste agenteak. Egungo erregimenean ziurtzat jotzen da gizarte zerbitzuen aurretik familiek erantzungo dietela suertatzen diren premiei, dela zaintza beharrean dagoena zuzenean zainduz, dela lan horiek egiteko beste pertsona bat kontratatuz (horretarako gaitasuna dutenek). Gizarte zerbitzuak bigarren mailako hornitzaile izatera eramaten ditu horrek.

Baina errokoa da arazoa, gizarte zerbitzuetan zaintza ez baita bizitzako fase eta momentu guztietan behar dugun zerbaiten gisara ulertzen, eta, ondorioz, menpeko egoeretan esku-hartzen da nagusiki, bestelako zaintza beharrak babesgabe utziz. Horregatik esaten da salbuespenezko izaera dutela. Eskaintzen den laguntza bera ere partziala da, kasu gehienetan gizarte zerbitzuak bestelako zaintza zerbitzuekin uztartu behar baitira. Horrelakoetan, beste zerbitzu eta agenteekin dagoen koordinazioa hutsala da, eta horrek berak erreferentziazko zaintzaile nagusiei zama handia dakarkie.

Zurruntasuna ere aipatu behar da oztopo gisa. Gizarte zerbitzuetan aurrez zehaztutako kartera zorrora mugatuta lan egiten da, eta nekez heltzen dira hori dibertsifikatzera edo zabaltzera. Baliabide eta zerbitzuen eskaintza ez da malgua, eta horrek zuzenean kokolan jartzen du pertsonan oinarritutako arreta ematea.

Azkenik, ezin aipatu gabe utzi diru kontuak, gizarte zerbitzuetan aurrekontu mugatuekin egiten baita lan, eta unibertsalizazioan guztiz eragiten duen koordainketaren sistema aplikatzen baita. Zentzu horretan, herri txikiak dira galtzailerik handienak, normalean muga ekonomiko handiagoak dituztelako eta, beraz, gizarte estaldura txikiagoa.

Horrek guztiak, eta gizarte zerbitzuetako funtzionamendu burokratikoak, laguntzak herritarrentzat baliagarri izatea oztopatzen du, eta bestelako zaintza hornitzaile batzuetara jotzea gailentzen da.

Zer hobetu handia dago gizarte zerbitzuen izaera, funtzionamendu, antolaketa eta prozeduretan, eta hauek dira lehenetsi ditugun helburuak:

- 5.1 POAra egokitutako egitura eta funtzionamendua ezartzea.
- 5.2 Zaintza zerbitzuen eta programen informazioa zentralizatzea.
- 5.3 Gizarte beharrei erantzuteko berariazko zerbitzuak eta programak sortzea.

**POARA EGOKITUTAKO EGITURA ETA
FUNTZIONAMENDUA EZARTZEA**



Gizarte zerbitzuen antolaketa egokitu

- Arduradun politiko eta teknikoak trebatu.
- Bizi plan integraletara egokitzeko, gizarte zerbitzuen egitura berritu, koordinazioa ardatz.
- Erakunde zein eragile komunitarioen arteko koordinaziorako eta lankidetzarako egiturak sortu.

ZAINTZA ZERBITZUEN ETA PROGRAMEN INFORMAZIOA ESKURAGARRI JARTZEA



Lurraldeko zaintza aktiboen mapaketa egin

- Herriko zaintza aktibo publiko eta pribatuen gaineko informazioa jaso.
- Gizarte zerbitzuen eskaintza gainontzeko baliabide komunitarioekin osatu.
- Gizarte zerbitzuen baliabideen gaineko informazioa herritar guztientzako eskuragarri jarri.

GIZARTE BEHARREI ERANTZUTEKO BERARIAZKO ZERBITZUAK ETA PROGRAMAK SORTZEA



Giza baliabide eta egitasmoak diseinatu ikuspegi erlazional eta prebentiboarekin lan egiteko

- Bizitzako etapa guztien zaintza beharren azterketa egin.
- Egoera konplexu edo zaurgarrietarako proposamen zehatzak garatu.
- Belaunaldiartekotasuna sustatzeko ekinbideak martxan jarri.

Etkez etxeko laguntza zerbitzua eraldatu

- Etkez etxeko zerbitzua hobetu, bere funtzioak zabalduz eta baliabideak handituz.
- Langileen ratioen eta lan baldintzak hobetu zerbitzuarekin batera.

Bakardade ez hautatua prebenitu eta horri aurre egiteko programa espezializatuak sortu

- Detekzioa hobetu bakardadea eta/edo gizarte isolamendua saihesteko.
- Bakardadea eta/edo gizarte isolamendua prebenitzeko estrategiak aktibatu.
- Harreman sozialak erraztu eta komunitate ehuna trinkotzea bultzatzen duten programak martxan jarri.

Parte hartze soziala helburu izanik, erakunde eta sailen arteko zerbitzu, programa edo egitasmo konkretuak sortu

- Pertsonak ahaldundu eta lagundu, bizitza publikoan eta komunitateko bizitzan parte hartu eta erabakimena izan dezaten.
- Erakunde, eremu pribatu eta esparru komunitarioaren artean lankidetzaz zerbitzu espezifikokoak sortu, pertsonen parte hartze soziala bermatzeko.

6. LAN LERROA

BIZITOKI POLITIKA KOLEKTIBOA ETA ZAINZAILA

Etxebizitzak etengabeko goranzko joeran doan negozio izaten jarraitzen du, eta gaur egungo etxebizitza politikek interes pribatuak lehenesten dituzte, interes komunitario eta sozialen kaltetan. Neurririk gabe eraikitzen jarraitzen dira etxeak, eskasia dagoela argudiatuta, baina hori negozio inmobiliarioaren beste katebegi bat besterik ez da.

Horregatik, herri zainzaileek bizitokirako eskubidea bermatzeko esku-hartzea izan behar dute oinarrian. Bizitzako ziklo guztira egokituko diren askotariko bizitokiak, herritarren bizi proiektuak babestuko dituztenak eta gaur egungo antolaketa soziala gaindituko dutenak sustatzea egongo da lan lerro honen oinarrian, sinistuta zaintzen duen herri batek bizitzarako ezinbestekoa den tokia eskaini behar duela. Norbanakoen eta komunitateen biziraupen eta babeserako ezinbestekoa da bizitoki duina izatea, gure bizitza kalitatea bermatzeko osagaia baita.

Honako hauek dira lehenetsi ditugun helburuak:

- 6.1 Etxe babestuak promozionatzea.
- 6.2 Etxe kolektiboak laguntzea.
- 6.3 Bizi-osorako etxeen sustatzea.

ETXE BABESTUAK PROMOZIONATZEA



Onartuta dauden lurzoruetan etxebizitza babestuak eta sozialak sustatu

- Lurzoru publikoak kooperatibei edo gizarte erabileran jarraitzeko klausulak dituzten gizarte sustatzaileei bideratu.
- Irabazi asmorik gabeko erakundeekin hitzarmenak sinatu etxebizitza sozialak bideratzeko.
- Eraikuntza berrietan gutxieneko ehuneko bat babes ofizialeko etxebizitzetarako jarri.
- Eraikuntza lizitazioetan klausula sozialak txertatu.

Alokairu sozialerako laguntzak bideratu

- Epeak eta administrazio baldintzak arindu.
- Jabeekin negoziatu, zerga pizgarrien truke arrazoizko alokairuak ezartzeko.
- Bigarren etxebizitzak dituztenak aktibatu.

Etxebizitza desokupatuen erabilera sustatu

- Desokupatuta dauden etxebizitzaren erabilera sustatzeko programak sortu.
- Desokupatuta dauden edo gutxiegi erabiltzen diren etxebizitzak identifikatu (katastroa, kontsumoa, errolda erabili horretarako).
- Jabeen lankidetzak lortzeko zuzeneko komunikazio bideak ireki eta komunikazio kanpaina orokorrak egin.
- OHZan (IBlan) errekarquak aplikatu luzaroan hutsik dauden etxebizitzetara.
- Inor bizi ez den etxebizitzek dagokien funtzio soziala betetzeko neurriak dekretu bidez arautu.

- Erabilera aldi baterako lagatzeko programa bat sortu, jabearentzako berme juridikoekin.

Etxabeak eta hustutako eremu industrialak elkarbizitzarako gaitu

- Erabiltzen ez diren industria lurzoruak birkalifikatu, bizitegi, kultura edo komunitate erabilerarako.
- Etxebizitza kooperatiboko proiektuetarako, zentro komunitarioetarako edo kultura guneetarako deialdi publikoak egin.
- Autokudeatutako proiektuei lagundu, lokalak edo orubeak aldi baterako utziz.

ETXE KOLEKTIBOAK SUSTATZEA



Etxebizitza kooperatibak sustatu

- Belaunaldien artekoak, gaitasunen artekoak...
- Kooperatiba bat hasi nahi duten taldeei aholkularitza teknikoa eta juridikoa eman.
- Lurzoru publikoa etxebizitza kooperatiboko proiektuetarako gorde hirigintza planetan.
- Udal lizentzia eta tasetan laguntza edo hobari fiskalak eskaini.

Belaunaldien arteko elkarbizitzarako espazioak sortu

- Belaunaldi desberdinak elkartzeko ekipamenduak, elkar-guneak, bizitokiak edo bestelako espazioak gaitu.
- Jardueren bidez sustatu belaunaldien arteko topaketak (baratzeak, tailerrak, liburutegi bizia...).
- Erakundeen laguntza duten adinekoen eta gazteen artean etxebizitza partekatuko programak bultzatu.

Erabilera lagapeneko kooperatibak bultzatu, horretarako lurzoru publikoak lagatzeko aukerak ere baloratuz

- Lurzoru publikoa epe luzera lagatzeko deialdiak egin.
- Hirugarren sektoreko erakundeekin hitzarmenak sustatu, ereduaren kudeaketa komunitarioa errazteko.

BIZI OSORAKO ETXEAK SUSTATZEA



Bizitokien egokitzapenerako laguntzak bideratu

- Dirulaguntzen lerro bat sortu, etxebizitzak adinekoei, ezintasunen bat dutenei edo mugikortasun murriztua dutenei egokitzeko.
- Erreforma proiektuak idazteko doako laguntza teknikoak edo hobariduna eskaini.
- Administrazio izapideak sinplifikatu.
- Gizarte zerbitzuekin koordinatu, lehentasunezko egoerak hautemateko.

Promozio berrietan egokitutako etxeen portzentaje bat zehaztu

- Tokiko hirigintza araudian gutxieneko etxebizitza batzuk irisgarriak edo erraz egokitzeko modukoak izateko betebeharra sartu.
- Sustapen berri guztietan betetzen dela zaindu, hirigintza ikuskaritzaren bidez.

Harrera eta babeserako etxebizitza kopuru bat zehaztu

- Etxebizitza publikoen gutxieneko kopuru bat erreserbatu helburu horietarako, zuzenean edo hitzarmenean kudeatuta.

ELIKADURA, AGROEKOLOGIA ETA ARRANTZA

Elikadura osasuntsua izateko eskubidea aldarrikatu nahi dugu; hots, pertsona orok elikagai nutritiboak eskuratzeko baliabideak izatea. Bizitzak gure gizarte antolaketaren erdigunean kokatzearekin batera, zentralitate handiagoa behar du elikadurak, eta, horrekin batera, elikadura sistema guztiak. Horrexegatik, elikadura eskubidearekin batera, elikadura burujabetza nola gauzatuko dugun pentsatzen jarraitzea dagokigu, herri zaintzaileak eraiki nahi baditugu.

Elikadura burujabetzak harremana zuzena du komunitatearekin, berau antolatzeko dugun moduarekin eta horrek lurraldearekin duen harreman eta konexioarekin. Beraz, trantsizio ekosoziale-rako, eta dugun kolapso ekologikoa kontuan hartuta, ezinbestekoa izango da tokiko ekosistemak bultzatuko dituen nekazaritza eta abeltzaintza agroekologikoaren alde egitea eta tokiko artisau arrantza bultzatzea.

Honako hauek dira lehenetsi ditugun helburuak:

- 7.1 Elikaduratik agroekologia eta arrantza jasangarria sustatzea.
- 7.2 Proiektu agroekologikoei lurrerako sarbidea erraztea.
- 7.3 Artisau arrantzak herri bizietan(tzetan) txertatzea.
- 7.4 Ekoizpen agroekologikoa sustatzea.
- 7.5 Herritar oren elikadura eskubidea bermatzea.

7.1 HELBURUA:

ELIKADURATIK AGROEKOLOGIA ETA ARRANTZA JASANGARRIA SUSTATZEA



Elikadura mahaiak sortu eta saretu

- Administrazioak, herritarrek eta eragile interesdunek parte hartzen duten espazioa, udalerrian garatuko diren elikadura estrategia zehazteko.
- Ordezkaritza tekniko eta politikoei trebakuntza eskaini, agroekologian, artisau arrantzan eta elikadura eskubidearen inguruan.

7.2 HELBURUA:

PROIEKTU AGROEKOLOGIKOEI LURRERAKO SARBIDEA ERRAZTEA



Dagoena mantendu

- Egun dauden nekazaritza lurri eutsi eta ekologikoetara gerturatu, tokiko merkaturatzearekin.

Natura ondarea eta nekazaritza ingurunea babestu eta sustatu

- Lurraldea zaintzeko akordioak egin, natura eta nekazaritza ondarea bermatu.
- Parke agroekologikoak sustatu, tokiko merkaturatzeari lotuak.
- Nekazaritza jarduerarako erabil daitezkeen lursail publikoak eta erabiltzen ez diren lursail pribatuak barne hartuko lituzke.

7.3 HELBURUA:

ARTISAU ARRANTZAK HERRI BIZIETAN(TZETAN) TXERTATZEA



Dagoena mantendu

- Egun dagoen arrantza flotari eutsi tokiko merkaturatzearekin.
- Belaunaldi berriak sektorean sartzea sustatu.
- Lanbidearen balioa nabarmentzeko inizatibak aktibatu.
- Jakintza eskuratu, transmititu eta lantzeko espazioak eskaini.

7.4 HELBURUA:

EKOIZPEN AGROEKOLOGIKOA SUSTATZEA



Tokiko nekazaritza ekologikoko proiektu berriei laguntza ekonomikoa eta aholkularitza tekniko eman

- Orientazio tekniko emango duten erreferentziak landu.
- Azpiegitura kolektiboak bultzatu.
- Finantza lerroak, dirulaguntza publikoak eta zerga arintzeak abian jarri.
- Kontsumo kooperatibak sustatu eta babestu.

Belaunaldi berriak sektorean sartzea erraztu

- Prestakuntza planen bidez, eta etxebizitzaren behin-behineko lagapenarekin, produkzio baliabideak eskuratzearekin eta abarrekin.

HERRITAR OROREN ELIKADURA ESKUBIDEA BERMATZEA



Herri sukaldeak sortu

- Belaunaldi eta askotariko kolektiboei begirako jantokiak martxan jarri.
- Kolektiboki kozinatzeneko elkarguneak sortu, tokikoa sustatuz eta kulturartekotasuna oinarri.

Elikadura larrialdian dauden pertsonen azterketa egin

- Gizarte zerbitzuez gain, hirugarren sektoreko erakundeekin eta komunitate elkartean partaidetzaz diagnostikoa egin.
- Gizarte zerbitzuen, osasunaren eta hezkuntzaren arloan dauden datuak gurutzatu, profil eta eremu kalteberak haute-mateko.
- Eragin taldea azterketan sartu, haren ahotsa eta esperientziak integrazteko.

Elikadura osasuntsuaren eta herriko produktueta oinarritutakoan sentsibilizatu

- Komunikazio kanpainak antolatu.
- Sukaldaritza osasungarriko tailerrak sustatu, familia kaltebereri arreta berezia eskainiz.
- Zerbitzu publikoen (eskola jantokiak eta egoitzak, adibidez) pleguetan elikadura jasangarriko irizpideak sartu.

AZKEN HITZA

Zaintzen duten herrien kartografia honen amaierara heldu zara, helmuga berrien hasiera puntua denera, halaber. Izan ere, ez da makala ezarri dugun erronka: zaintzen duten lurraldeak edo, nahiago bada, lurralde zaintzaileak eraikitzea. Askotariko ikuspegietatik egin daiteke hori, baina hemen planteatu duguna egungo zaintza erregimen bidegabea aldatzeko sakoneko astindua da. Burujabetzan sinesten dugunok ezin utzi dugu albo batera zaintzaren gaia, batzuen esplotazioaz zaintzen duen herria nekez izango delako askea.

Trantsizio horretan lagungarri delakoan zehaztu dugu lanerako marko bat, herri zaintzailearen ikuspegi jakin batekin eta esku-hartzeko ildoekin, ziur baikaude, eskala globalean aldaketa sozialak egikaritzeko, tokitik abiatzea ezinbestekoa dela. Eta hor, tokiko erakundeak giltzarri dira, prozesu

eraldatzaileak laguntzeko, bultzatzeko edota aktibatzeko. Ikusi dugu etxe barrutik hasi behar dela, hau da, udaletan egitura eta lan kultura berriak txertatu behar direla, gizartera begirako aldaketekin batera. Bada nondik hasi.

Askotariko eremuetako pertsonak elkarlanean sortutako dokumentua izan da honako hau, zaintzen duten herriak eraikitzeko bokazioa duena. Baina hemen ez da ezer bukatzen. Hemen jasotakoak egiaz erabilgarri izan daitezten, irakurri eta berrirakurri behar da, praktikara eramaten jarraitu behar da, aldaketak egin, zirriboratu, hanka sartu eta hobetzen saiatu. Esperientzia kolektiboz onduko da zaintzetan eta Euskal Herrian justizia soziala eta burujabetzaren bidea.

Azken hitz hauek proiektu zaintzaile askoren hasiera izan daitezela.

HERRI ZAINZAILEA HELBURU.

Eraldaketarako gakoak

Zaintza erdigunean jartzea, gaur egun, ez da aukera bat: premia bat da. Gero eta handiagoak dira zaintzaren inguruko erronkak, eta gaur egungo sistemak ez die behar bezala erantzuten.

Liburuxka honek proposamen argi bat dakar: herritik eta herriarentzat, zaintza modu bidezko, kolektibo eta burujabe batean antolatzeko beharra. Tokiko erakundeak eta komunitateak giltzarri dira eraldaketa honetan, eta hemen jasotzen diren gako eta ideiek horretan lagundu nahi dute.

Tresna hau elkarlanean sortutako prozesu baten emaitza da, baina amaiera izatetik urrun dago: zaintza ardatz duen herri bat eraikitzeko hasiera bat izan nahi du.

Irakurri, partekatu, moldatu... eta bideari ekin.



Udalbiltza